

» gogoeta

# Boliviako goi ordokiko oihua

JOSU SORAUREN

IDAZLE ETA IKERTZAILEA

**A**merika deskubritu zutenetik, kroleen, enpresa kolonialen eta multinazional anglosaxoi, espainiar eta iparramerikarren mende egon dira boliviarrak —kitxuak, aimarak eta guaraniak—. Eta, noski, baita CIAren ezkutuko azpikoekin mende ere. Lurrak eta enklabeak kendu zizkieten. Mineralak lapurtu zizkieten, eta animaliak balira bezala tratatu zituzten. Cerro Ricoko meatzea hirurehun metro murriztu zen, ustiaketaren ondorioz. Horren inguruko luzetan, hainbat eta hainbat kilometrotan, silikosiak eta nekeak jota daude gazteak —meatzariak 35 urtera arte bizi dira, batez beste—. Hainbat indigena belaualdik indargabe eta izututa egin behar izan diote aurre metal astunen ondorioz umeki malformaziodunak edukitzeari. Amaigabea litzateke inbaditzaileek Boliviako indigenei eragindako zoritxarren zerrenda. Herrialde aberatsa zen Bolivia itxura denez; poble izatera behartutakoa, ordea.

Beste sekuentzia bat eskaini nahi digu historiari, baina Pachacuti mugimenduko buru Felipe Quesque Huancak adierazi duenez, autoestimua berreskuratu du indigenak. Azkenean, indigenaren musu beltzaren eta zailduak aurrez aurre begiratzen dio inbaditzaileari, burua makurtu gabe. Matxinatu egin dira goi ordokian —Yuangasen, Chaparen edo El Alton—, eta Bechtel multinazional zekeneren asmoa —ura pribatizatzea, alegia— etetea ere lortu dute. Gasaren jabetza ere aldarrikatu dute. Sozialismorako Mugimenduko (MAS) buru Evo Moralesek, presidentek, kokaren legezko merkatu baten beharra aldarrikatu du, estatubatuarren helburuari —kokaina ekoizpenik ez— aurka

eginez. Kitxua, aimara eta guaraniarentzat produktuo sakratu eta ezinbestekoa da koka hostoa, altuerari eta goseari aurre egiteko.

Eta beste hainbat sekuentziaren artean, bada bat, lotsagarria hori ere, noski, Kolonen garaiko inbaditzaile handinahiaren «arima inperial» usteleak sortutakoa. Gurutzeta eta ezpata erabiliz, bere balio betikoekin kiratsa eguzkia sartzen ez zen lekuraino baldi zuenarena. COPEK egin du sekuentzia lotsagabekeria eta doilorkeria hori. Irrati kate horren zakarkeria eta moralik eza gaitzagarriak baino ez lirateke izango, gorrotoa eta pozoia jaurtiko ez balitu. Hori duintasun eskasa faxista horien! Evo Morales presidentea bezalako gizon jator eta konprometitu baten ontasunaz eta zintotasunaz —ez dute kontzeptu hori ezagutzen— barre egitea ere! Badakigu COPEkoak bat datozela Bush hiltzailearekin, haren «Ansar» miretsiarekin eta horien antzekoekin. Ausartuko al ziren Evo-oren aurrekoari adarra jotzera, haren gaztelaniaren ingeles kutsua zela-eta yankie deitzen ziotenari? Ezta pentsatu ere! Izan ere, COPEK ez die sekula muzin egin presidente narkotrafikatzaileei eta Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtzaren ahaideei. Ezta zuzendariari ere, noski, isipua eta eskumikua darabiltzate-nei. Zer espero daiteke jertse txaldar bat jantzita agertzen den presidentear? Pentsatu dute COPEkoek. Noski! Zer jakin behar du ba protokoloaz hura bezalako gorri batek!

Bestelako ezusteko sekuentziak ere espero behar. Evo Moralesen garaipenaren berri eduki bezain laster, Paraguaiako mugetara eraman zituzten indar kontrairratzaile yankiek *marine*-ak. Izutzeko egindako maniobra? Noski. Argi eta garbi mintzatu da presidente berria. Hidrokarburoen jabetza berreskuratzea du helburu. Gasa-

ren jabetza eta industrializazioa berreskuratuta 1.300 milioi dolar lortuko ditu, Boliviak egun jasotzen dituen 50 milioien aldean.

Repsolen jarduera iraingarria da. Cochabambako Isidoro Secore natur parkea baso erreserba dela-eta, hango lurrak banatzea debekatu du Boliviako Gobernuak orain arte. Zalantza gutxi dago Hego Amerikako eta Hego Ameriketarik kanpoko gobernuen ustelkeriaz. Horiak horrela, urteak daromatza Repsol konpainia espainiarrak parke hori zultzen, eta, noski, baita kutsatzen, hondatzen eta, haiek dioten bezala, izorratzen ere. Telebista kate guztietan ikusi genuen Evo Morales eta Espainiako Enpresaburu Elkartearen Konfederazioaren (CEOE) arteko hitzordua; ulergaitza, herritar aruntarantz.

Oligarkieei eusteko gai izango al da buruzagi hori, elkartasuna lilura besterik ez bada? Izan ere, hortxe daude Mexikoko Balore Merkaturia, Prisa, Europako eta AEBetako multinazionalak eta CIA ere. Eta globalizazioaren aldekoen azpikeriak ere ez ditu urrun izango. Gainera, analistek dioten bezala, eskarmentu falta izango dute agintean bai hark eta bai haren taldeek eta botoa eman zioten herritarrek. Eta gerta liteke garaipenaren usainarekin zorabatzea. Eta lehiakide eta pertsona gorazaleak ere sor dakizkiok taldean, boteretik kanpo geratu nahiko ez dutenak.

Castrorekin, Chavezekin, Lularekin, Tabare Vazquezekin eta Kirchnerrekin bat egitea da aukera bakarra, baina, Boliviako politikaren orain arteko ildo aldatu nahi badu. Eta, haiek bezala, Ameriketako Merkataritza Librerako Esparruari (ALCA) aurka egitea.

Aspaldi iragarri dudan bezala, Boliviak atzera egin ez duela jakitea da itzaropentsuena neoliberalismo aztarnarik txikiena ere gorroto dugunontzat. Hura inguratzen,

mehatxatzen eta menderatzen saiatuko dira Pentagonoan eta Europa erdialdean. Baina orain hori ez da hain erraza izango. Egundakoz bagoi gehiago hiltzeko prest dagoen bihotz hezigabearen erakusgarri da Boliviako indigenaren oihua. Zer galdu ez duenarena. Aspaldi amaitu ziren etsipenaren eta Jaunkoaren borondatearen garaiak, «apaizak» agindutakoak.

Baina bada presidente aimara berriaren jarrera argi eta garbi erakusten duen sekuentzia bat: itzulitururrik gabe, *apartheid*-aren amaiera aldarrikatzeko ausardia, deskolonizazioari eta lurrak jabeiei jultze-ari buruz mintzatzeko adorea. Denok harritu gaitu haren ausardiak, estatubatuar harroputzari aurre egin eta Caracasen, Habanaren eta La Pazen artean «ongiaren ardatza» sortu izana iragartzeko. Horiak horrela, ez da harriztekoa bibetoko ile bakar bat ere mugitu gabe irakeko gerran sartu gintuen hura sutan jarri izana. Hara zer agindu duen haren bihotz katoliko, apostoliko eta erromatarrari dagokion bezala: haren fundazioak ahalegin guztiak egingo dituela Castrori, Chavez eta Moralesi aurre egiteko. Bai arriskutsuak, Azoreetako amesleri nazkagarri horiek! Gizatasun apurrik baduten ere zalantzan jartzen du batek. Bolivia edo Venezuela, Irak edo Sudan, zer axola du? Horiak ere dituela sekula ere kezkatu herrialde horietan jendea gosearen edo ahuleriaren ondorioz hiltzeko, horrela beren buruak edo fundazioak aberastuz gero. Jauna, jauna, zerez eginak daude munstro horiek! Hori ezjakintasuna edo gaiztakeria, horiek babestu, laudatu edo bedekatzeko dituztenena!

Nahitaezkoa da Boliviako egitura sozioekonomikoa berregitea. Baina are ezinbestekoagoa, agian, haren mezua herri zapaldu guztietara zabal dadin. Hala izan bedi.

Erredakzioan itzulia

## 2005: urte galdua

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,  
"TXILLARDEGI"

IDAZLEA

**B**akea, bakea, bakea» entzuten da bazterretan. «Bake-prozesua badator...». «Bake-prozesua ez omen da oraindik hasi; baina berehala hasiko...».

Eta egun hauertanxe hasi dugun 2006 urte honetaz ere, «Bakearen urtea» izango dela segurtatzen digute.

Baina jai-ta-aste aldarrikatzen den «Bake» hori ekar dezaketen oinarrien aztarnarik ez da ageri.

Poliziak bere arrostoei eta zapaketa-ri eusten die. Hori bai. Nekagaitz eta eten-gabe.

Tarteka, nire adinekooi bederen, berriro 1961 urtean jasan genuen hitz betekada bera daukagula iruditzen zaigu. 25 años de Paz leloa errepikatzen zen orduan edonor itozteko moduan.

Frankistek Paz hitzaz sasi-bakea, orde-

na publikoa adierazten zuten, kale-istulurikeza. Eta bagenekien. Orain, aldiz, errepikapenaren errepikapenaz, egoeraren funtsaz nahasten hasiak ote garen dirudi.

1952an, hala ere, Mundu Gerratea amaiturik, mundu guztiko juristik ospe-etsuenek, antolaketa berriaren oinarriak bilatzen ari zirenean, Abenduaren 16an (NBEren Biltzarrek 637 (VII) Erabakia) onartzean, hauxe adierazi zuten: *Le premier droit d'un peuple est d'être souverain. Le droit des peuples à disposer d'eux-mêmes est une condition préalable de la jouissance de tous les droits fondamentaux de l'homme.*

Frantsesezko testua bere horretan utzi dut; euskal itzulpenean ideiak «bortxatu» dirudala esan ez diezadaten.

Handik 14 urtetara, eta bide beretik, Pactos Internacionales de 1966 delakoak onartu ziren; behin eta berriz gogoratu zia.

Euskal Herrian, beraz, geure etorkizuna euskal herritarroi, kanpotikako baldinketarik gabe, geure gisara hautatzeko

eskubidea aitortuko ez zaiguno, ordena publikoa eraiki daiteke behar bada gure kaleetan (oso nekez!); baina Bakea inola ere ez.

Bakea eskubideekiko errespetuaren gainean eraikitzen delako: eta ez eskubide horien ukazioan.

Herriguziek dute Auto-Determinatzeko eskubide sakratua. Eta Euskal Herriak ere bai.

Hots, Bakea Zuzenbideari darraikio orpozo orpo. Bakea Zuzenbidearen ezarketa-aren ondorioa delako. Alegia, eta lehen-lehenik, A.D. eskubidearen gauzaketan.

Horregatik idatzi dugu hastapeneko izenburuan 2005 urtea, urte galdua izan dela. Irribarreen eta «talante» famatu horren atzean, ez baita urratsik batera egin gure herriari dagokion Erabakimenaren alorrean. Ibarretxeri-Madrilen emandako «portazo» lekuko.

Areago. Euskal eraikuntza baketsua zafatu nahi duen 18/98 makro-epaiketaren, eta presoan arazo ezin larriagoan (non dago gaurko munduan, Bushen Peltier

kasoa salbu, 20 eta 25 urtetik gorako preso politikorik?), espainiar fazismoa ageri da gailen, eta ez inolako eskubide proiekturik.

«Es que los vascos sois unos violentos» entzuten dugu —y el Estado de Derecho no puede ceder ante el chantaje de una banda de asesinos».

Bego.

Eta Kataluñan zer? Han ez baitago «banda armaturik». Hala ere katalanen Erabakimenaren ukazioa, Euskal Herrian bezain tinko dago (are tinkoago ez bada!).

«España Una e Indivisible»-ari eutsi nahi zaio. Irribarrez, talantez, luzamenduz, jukurtiaz, edo-ta... Armadaren bitartez; Mena Angulo Teniente Generalak gordindki aldarrikatu duenez.

Bakea nahi dugu guk. Noski! Espainiaren baino gogozago.

Baina Zuzenbidearen ukaeraren gainean eraiki nahi diren egituraketei, inposaketa deitzen (eta deituko) diegu. Eta ez Bakea.